



**Basaburuko Udala**  
CIF P 3104900 J  
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

### **2024KO IRAILAREN 16AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO EZ OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2024ko Irailaren 16an, eguerdiko 15:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Santos Etxegia Oronoz, alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

**BERTARATUAK:** Iker Isiegas, M<sup>a</sup> Mar Ansorena, Julen Beunza, Javier Auza eta Alaia Etayo.

**BERTARATU EZ DIRENAK:** Micaela Elizalde.

15:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dagoen gai bakarri lantzeari ekin diote bildutakoek.

### **GAI ZERRENDAA**

#### **1.- Sasturain etxeko beheko solairua egokitzea. Obra esleipenaren onespena.**

Alkateak azaltzen du irailaren 9an bildu zela balorazio mahaia eta bigarren gutun azalaren balorazioa egin eta hirugarren gutun azala ireki zela.

Obra honen esleipenera enpresa bakarra aurkeztu da COTA enpresa. Proiektuan aurrekontua 251.999,13 eurokoa zen eta obra egiteko epea 5 hilabetekoa.

COTA enpresak aurkeztutako proposamenaren arabera obra 251.500 eurotan egingo lukete 5 hilabeteko epean. Obraren berme epea ez dute luzatzen hortaz hiru urteko berme epea izanen luke obrak.

Balorazio teknikoaren aldetik balorazio mahaiaren bileran proiektua egin duten arkitektoak adierazi zuten proiektua ongi aztertua zegoela eta adierazi zizkiotela ere aldaketa batzuk onargarritzat jo dituztenak eta beste batzuk aldiz ez, proiektura egokitu beharko liratekeenak.

Hortaz hau guztia ikusita, bildutakoek aho batez, ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

- **Sasturain etxeko beheko gela egokitzeko obra COTA enpresari esleitzea 251.500 euro BEZ kanpoko aurrekontua onartuz eta obra egiteko epea 5 hilabetean finkatuz. Obraren berme epea 3 urtekoa izanen da.**
- **Erabaki hau esleipenduna den COTA enpresari jakinarazi.**

## **2.- Ihabengo aisialdi gunearen egokitzapena. Obra esleipenaren onespena.**

Alkateak azaltzen du irailaren 9an bildu zela balorazio mahaia 2 gutun azalaren balorazioa egiteko eta hirugarren gutun azala irekitzeko.

Bertan aurkeztutako enpresa bakarrari obra esleitzeko proposamena egin zuen balorazio mahaiak.

Proiektu hau PSTD programaren barruan egonik lehenik MINERVA aplikazioaren bidez kontratazioa onartzeko ahalmena duten guztien eta hautatutako enpresak interes gatazkak dituzten edo ez aztertzen du Estatutako Ogasun Agentziak eta horren inguruko txostena helarazi udalera.

Txosten hori jasotzean esleipena onartu ahalko du udal batzarrak.

## **3.- Ihabengo aisialdi gunean komun lehorra jartzea. Obra esleipenaren onespena.**

Alkateak aipatzen du aurreko kasuan bezala obra hau irailaren 9an egin zen bileran esleitzeko proposamena onartu zela, enpresa bakarra ere aurkeztu zela esleipen honetara.

MINERVA aplikazioaren interes gatazken baieztoko txostena jasotzean esleituko da hortaz obra hau ere.

## **4.- Jaunsaratsko baso sorgindua egitea. Obra esleipenaren onespena**

Alkateak azaltzen du obra hau egiteko bi enpresa aurkeztu zirela eta irailaren 9ko bilera balorazio mahaiak obra esleitzeko proposamena luzatu zion udal batzarrari.

Bi enpresa horietako batek ez zuen ongi aurkeztu hirugarren gutun azalean eskatzen zitzaion dokumentazioa eta hortaz baztertzeko erabakia hartu zuen balorazio mahaik.

MINERVA aplikazioaren interes gatazken baiezkotxostena jasotzean esleituko da obra hau ere.

**5.- 2024/101 eta 2024/102 alkate ebazpenen berrestea : Iharduera ekonomikoen guneko argi hartunea eta transformadorea egiteko obraren esleipena.**

Alkateak azaltzen du iharduera ekonomikoen gunean egin behar diren obrak bi zatitan banatzen direla, alde batetik argi transformadorea jarri eta bestetik argia eramateko obra, kanalizazioak eta beste...

Bi obra hauek dirulaguntza onartua dagoenez Industria Ataletik, irailaren 30ean hasita egon behar dira hortaz irailaren 12an balorazio mahaia esleipen proposamenak onartu eta alkate ebazpen bidez esleitu ziren obrak.

Orain batzarrari alkate ebazpen horiek berrestea dagokio.

2024/101 alkate ebazpen bidez onartu zen Basaburuko iharduera ekonomikoen gunean argia eramateko obraren esleipena Lakita S:A enpresari ematea 31.104,44 euro BEZ kanpoko aurrekontuarekin, obra egiteko epea 12 lan egunekoa izanik eta obraren berme epea guztira 9 urtekoa. 2024/102 alkate ebazpen bidez onartu zen Basaburuko iharduera ekonomikoen gunean transformadorea jartzeko obra, Aldakin enpresari esleituz 108.760,63 euro BEZ kanpoko aurrekontuarekin, obra egiteko epea 3 hilabetekoa izanik eta obraren berme epea guztira 20 urtekoa.

Bildutakoek hortaz, aho batez onartzen dute 2024/101 eta 2024/102 alkate ebazpenak berrestea.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 15:50ak direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.